

IZASKUN
RUEDA

ZIRKO IKASTARO, UDALEKU ETA TAILERRAK

DOSIERRA



ZIRKO IKASTARO ETA UDALEKUAK HELBURUAK:

Zirko aktibitateak kontzentrazioa, pertseberantzia, disziplina estimulatzeaz gain, norberaren alaitasuna, konfidantza eta lan egiteko gogoia suspertzen du. Alde batetik zirkoa kirol bat da, eta aldi berean arte bat. Kirol legez, gure habilitate psikomotoreak, indarra eta erresistentzia lantzen ditu. Eta ez bakarrik fisikoki, baita mentalki ere.

Bestalde, artearen aldeak hartuta, haurren kreatibitatea, irudimena eta adierazmen gaitasunak indartzen ditu. Honez gain, tailer honetan jorratzen diren gorputz adierazpen, dantza eta antzerki ariketen bitartez, haurrei hitzekin adierazi ez dakizkin sentimenduak eta sentsazioak adierazten laguntzen zaie. Eta bestetik, zirko modalitate desberdinetan (akrobaziak, aire akrobaziak...) gorputza ezhoiko moduan erabiltzen dugu eta honek norberaren konfidantza zein kontzentrazio ahalmena bermatzen du.

Tailer honetan zirko modalitate desberdinak (malabareak, oreka, akrobaziak eta aire akrobaziak) jorratuz haurrak zirkuaren mundura hurbileratzen ditugu.

Eta behin zirko oinarri hauek hartuz, prozezu kreatibo batean sartzen ditugu, tailer amaierarako eurek sortutako "Zirko Txiki Ikuskizun" bat eratuz. Horretarako, tailer honetan zirkoaz gain, aurpegi margoketa, jantzigintza, antzerki, klown eta dantza oinarri bat ere irakatsiko zaie.



ZIRKO IKASTARO, UDALEKU ETA TAILERRAK DOSIERRA

IKASTARO, UDALEKU ETA TAILERRAK EDUKINEN DESKRIBAPENA:

BEROKETA, FLEXIBILITATEA ETA ERLAJAZIOA:

Kurtso eta kanpamendu hauen klase guztien hasiera gorputz beroketa gidatu baten bitartez egingo dugu, haurrak psikologikoki zein fisikoki geroago burutuko dituzten aktibitateetarako prestatuta egon ahal izateko.

Eta klasearen amaiera, luzapen ariketak zein erlajazio ariketekin emango dugu(haurrentzako yoga erabiliz).

MALABAREAK:

Tailerraren atal honetan malabare objektu desberdinak erabiliz (pilotak,mazak,aroak,kariokak,plater txinatarrak,diaboloak...) malabareen oinarritzko teknika irakatsiko zaie.

Eta horrez gain, "passing" teknikaren oinarria, malabareak taldeka egin ahal izateko.

AKROBAZIAK:

Atal honetan haurra akrobaziaren mundura gerturatuko dugu, banakako,binakako eta taldeko lana jorratuz. Banakako lana: txiribuelta aurrera, txiribuelta atzera, "rueda lateral", "vertical", "vertical- voltereta".

BINAKAKO ETA TALDEKO LANA:

"Acroporte" eta piramide irudi desberdinak egiten ikasiko dute.

OREKA:

Tailerraren saio honetan oreka landuko dugu, zirko oreka elementu desberdinak erabiliz: pedaloak, "rulo", monoziklo, mini-txirringa, hanka- paluak...

AIRE AKROBAZIAK:

Atal honetan zirko aire aparatu desberdinak probatuko dituzte: trapezioa, telak... (estruturura autonomoa daukagu honetarako)

GLOBOFLEXIA:

Pusikak erabiliz irudi simple desberdinak egiten ikasiko ditugu:txakurrak, loreak,ezpatak, txoriak... Geroago konplexuagoak diren irudiak egin ahal izateko: Popeye, Donald ahatea, Asterix, Obelix, "pantera rosa"...



ZIRKO IKASTARO, UDALEKU ETA TAILERRAK DOSIERRA

IKASTARO, UDALEKU ETA TAILERRAK EDUKINEN DESKRIKAPENA:

ANTZERKIA ETA KLOWN:

Antzerki eta clown inprobisazio, jolas eta taldeko ariketa desberdinak egingo ditugu. Honekin haurren kreatibitatea eta irudimena garatzea dugu helburu eta era berean norberaren pertsonalitatea bermatu eta besteen aurrean adierazteko gaitasuna landu.

DANTZA:

Honekin ere, haurren kreatibitatea eta irudimena garatzea dugu helburu, eta baita euren nahiak eta sentimenduak, dantza eta gorputz mugimenduaren bitartez adierazten ikastea.

AURPEGI MARGOKETA JANTZIGINTZA ETA ATREZZO ERAKETA:

Kurtoaren zati honetan haurrak prestatuko dugun "zirko txiki ikuskizuna"-ren jantziak, atrezzoak eta aurpegi-margoketaren diseinua asmatu eta eratuko dituzte.



ZIRKO IKASTARO, UDALEKU ETA TAILERRAK DOSIERRA

ZIRKUN ZIRKO JATORRIA:

Zirkun Zirk 2009. urtean sortu zen, “**Formación Profesional en Artes Circenses**” ikasketak dituen **Izaskun Rueda** gasteiztarraren eskutik. Zirkun zirkok, **antzerkia, txotxongilo eta zirko** teknika desberdinak jorratzen ditu. Bere lan guztietan **emozioa, sentsibiltatea eta sorpresa** ugariko saioak ikusi ditzazkegu, haurrentzako ikuskizun erakargarriak eratuz.

Zirkun Zirkoren eszenografiak oso partikularrak dira: detailez, kolore, esku lan handiez josiak. Bere ikuskizun gehienak hurrei zuzendurik daude, beti **autokonfidantza** mezuak bidaliz. Talde honen lan guztietan oztopo ugari pairatuko dituzten pertsonai desberdinak ezagutuko dituzue. Eta hauek euren lana, **pertseberantzia** eta hobetzeko grinari esker, oztopo guztiak gainditzea nola lortzen duten ere ikusiko duzue.

Bestealde, txotxongilo, antzerki eta zirko saio desberdinak nahasten direnez, mugimendu askoko ikuskizunak egitea lortzen du Zirkun Zirkok. Tarde honen obra guztiak, humore (klown) saio bat izaten dute eta beste zenbait saio teknikoagoak (oreka, malabare, akrobazia, bertikal saioak...).

Era berean, Zirkun Zirkoren ikuskizun guztiek ikusleen partehartze saio bat izaten dute, horrela publikoarekin gertuko harremana sortuz eta hauek ikuskizunaren parte izaten sentiaraziz.

Momentu honetan, Zirkun Zirk, ikuskizunez gain, zirko ikastaroak ematen ari da bere eskola propioan (Getxon) zein Euskal Herriko hainbat kulturetxe eta ikastetxetan. Horrez gain, Zirkun taldea, hainbat gizarte proiektuetan ere parte hartu du: Hondarribiko **Mendelu** auzoan, **Santiago de Chile**-ko “colegio de niños huérfanos”-en **Nepaleko** herrialde desberdinetan.

